

# Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

## Garai guztietako Forbes zerrenda



NEW YORK, 1917. B. C. Forbesek negozioetan eta finantzetan espezializatutako *Forbes* aldizkaria sortu zuen. Ia 70 urte geroago, 1986tik aurrera, urtero munduko pertsonarik aberatsenen zerrenda argitaratzen hasi zen aldizkaria. Eta orain, *Clio* hilabetekariak historiako pertsonarik aberatsenen Forbes zerrenda argitaratu berri du. Hauek dira hamar gizon horiek, emakumerik ez baitago zerrendan:

- Kreso Lidiako errege izan zen K.a. VI. mendean eta garaiko pertsonarik aberatsena zela uste zen, bere urre meategiei esker.
- Augusto enperadorea (K.a. 63-K.o. 14) Erromako hiritar aberatsena zen, Erroma munduko hiririk boteretsuena zen garaian. Bere ondasunei esker, besteak beste, errepublika monarkia bilakatu ahal izan zuen K.a. 27. urtean.
- Jacques Coeur (1395-1456) frantziar merkataria ezagunaren meritua handia izan zen: Erdi Aroan ez zen batere erraza halako ondasunak biltzea burgesa izanik, aberastasunaren pribilegioa nobleziarena baitzen.

Ezkerretik eskuinera, historiako hiru gizonik aberatsenetakoak: Augusto enperadorea, Kosme Medici eta John D. Rockefeller.

- Kosme Medici (1389-1464) finantzari sendi ezaguneko kidea zen. Errenazimantuan Florentzia hiriko buruzagi izan ziren Medicitarrak, baina negozioetan Kosme nabarmendu zen.

- Jacob Fugger (1459-1525) alemaniarra garaiko negozio gizon berritzaileena eta arrakastatsuen izan zen. “Enperadorean bankaria”, “merkatarien printzea” eta beste goituzen batzuk jarri zizkioten eta Maximiliano I.ak konde titulua eman zion 1514an.

- Mayer Amschel Rothschild-ek (1744-1812) jostundegi xumea zuen Frankfurteko juduen ghettoan. Hil zenean inperio ekonomiko izugarria zuen eta kapitalismoaren paradigma bihurtu zen.

- Alfred Nobel (1833-1896) bere izena dararmaten sariengatik eta dinamita asmatzeagatik da ezaguna. Lehergaien industriari esker munduko pertsonarik dirudunena izan zen, Rockefeller iritsi arte.

- John D. Rockefellerri (1839-1937) esker, Standard Oil munduko petrolio konpainia nagusia bihurtu zen. Egun, haren abizena aberastasunaren sinonimo da oraindik.

- Jean Paul Getty (1892-1976) ezezaguna izan zen luzaroan finantza mundutik kanpo. Hil zenean, haren ondasunak 1.300 milioi dolarretan zenbatu zituzten. Baina bere esku zeuden petrolio erreserbak kontuan hartu izan balituzte, kopurua hamar aldiz biderkatuko zen gutxienez.

- Bill Gates Microsoften jabea munduko pertsonarik aberatsena zen 2009an. 40.000 milioi dolar bildu ditu, besteak beste zorigaitz-toko Windows Vistari esker.

## Arrastoak

### Imperium online eta Sparta II

EDUKI HISTORIKOAK dituzten bi bideojokoren bertsio berriak merkaturatu dira berriki. Bata, *Imperium* lehen *city builder*-aren online bertsioa da (ezkerrean); Zesar Augusto enperadorearen kanpaina militarrek jasotzen ditu jokoak. Besteak, *Sparta II* izenekoak (eskuinean) Alexander Handiaren

konkistak ditu hizpide. Joko honetan mazedoniarrek, greziarrek, pertsiarrek eta egiptoarrek bat egiten dute. Erasoak, aliantzak, setioak... guztira emerretzi misio biltzen ditu eta honek ere online jokatzeko aukera ematen du, hau da, beste jokalaririk batzuekin sarean lehiatzeko aukera.

